

## ESKERMILA

Marijane MINABERRY

Geroztik berrogoi urte segurik pasatu dira. Euskal Etxerat joan nintzan bilkura baterat. Gaia zer zen ahantzia dut. Dakitana da Jean Haritschelhar-ek irakurtu zuela Berrizarteren *alegia bat*.

Loriaturik egon nintzan haren entzuten. Behar zen doinua behar zen lekuan ezarriz barnetik bizi-arazten zuen alegia. Entzuleei bihotzeraino sararazten testuaren mamia. Sekula ez dut hori ahantzi.

Aisa berantago egin nuelarik Euskal Herriaren *Eguberri* dizka ni baitan argi zagon. Hain kartsuki egina nuen testua ez zuen... Jean Haritschelharrek baizik irakurtzen ahal. Hala izan zen. Eskertu nuen orduan, ez dakit; baina egun nahi dut, eraikia izanzen zaion are pilan ene arte pikor ttipia ezarri.

ESKERMILA JEAN